

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

Ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen errolda, 2019ko laugarren hiruhilekoko

Erabiltzaileak Hartzeko Zerbitzuak ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen 2019ko laugarren hiruhilekoko errolda egin du.

Lehendakariak onetsi egin du 2020ko otsailaren 11ko 026 zenbakiko ebazpenaren bidez, eta jendaurrean jarriko da hamabost (15) egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesa dutenek Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango dute zergadunen errolda hori, 09:00ak eta 13:30ak bitartean. Zerbitzu hori Amurrioko udaletxean dago (Juan de Urrutia plaza zk.g.; behe solairua). Era berean, egoki deritzeten eta beren eskubide diren argibideak eskatu eta alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Zergadunek erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikuluan 3. paragrafoan.

Zergadunek berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute lehendakariaren aipatutako ebazpenaren aurka. Horretarako hilabete (1) izango dute iragarkiaren jendaurreko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Argibideak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze errekurtsuak lehendakariari jarriko zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2020ko martxoaren 23tik 2020ko apirilaren 22ra, bi egun horietan barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2020ko martxoaren 23an kobratuko zaie.

Tasa hori helbideratuta ez dutenek Caixabankek Amurrioko Elexondo kaleko 21ean duten bulegoan ordaindu beharko dute, etxean jasotako faktura eskuetan dutela. Faktura hori galdu edo jaso ez bada, Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan (Amurrioko udaletxea) jaso ahal izango da haren kopia.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarquak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Izoria, 2020ko otsailaren 11

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES